LAURITA SILES

2015.02.17 - 2015.03.22

HURRENGO ERAKUSKETA

barriek 2015. BFAren sorkuntza artistikorako bekak

ION MACARENO martxoak 24 – maiatzak 17

rekalde
Alameda Recalde, 30 | 48009 Bilbao
Tel. +34 94 406 85 32
www.salarekalde.bizkaia.net

Ordutegia
Asteartetik larunbatera: 10 - 14 eta 17 - 20:30
Igande eta jai egunetan: 10 - 14
Astelehenetan itxita

Horario
Martes a sábado: 10 - 14 y 17 - 20:30 h
Domigos y festivos: 10 - 14 h
Lunes cerrado

Opening hours
Tuesday to Saturday: 10 - 14 and 17 - 20:30 h
Sundays and holidays: 10 - 14 h
Monday closed



sarrera doan | entrada libre | admission free

rekalde

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia

Euskera

LAURITA SILES

helARTE es morirse de frío

2015eko otsailaren 17tik martxoaren 22ra

• Rekalde Aretoak **Laurita Siles**en (Málaga, 1981) *helARTE es morirse de frio* erakusketa aurkezten du Kabinete Abstraktuan, Bizkaiko Foru Aldundiaren sorkuntza artistikorako bekak eskuratu dituzten artisten lanak azaltzeko xedez abiarazitako barriek 2015 programaren barruan.

• Erakusketaren ardatz nagusia den ikus-entzunezkoak berriz lantzen du artistak hiru toki desberdinetan –Islandiako Laugarvatn-en, Bizkaian eta Marbellan– egin duen proiektua. Hasieran, proiektuak bederatzi atal zituen, eta batera biltzen zituen "helarte es morirse de frío" (Artea/Izoztea hotzak akabatzen egotea da) esaerak sortzen duen hitz-jokoari buruz kulturako 19 agenteri –artista, komisario eta kudeatzaileri– egindako elkarrizketak.

• Bestalde, erakusketak lan berri bat aurkezten du, Islandian eta islandierazko "Beharrak erakusten dio emakume biluziari iruten" esaeratik abiatuta sortua, artistak udatik aurrera Bilbaoarte Fundazioan garatuko duen lana. Rekalde Aretoan, proiektu berri horretarako sortu dituen marrazki, zirriborro eta artilezko pieza batzuk egongo dira ikusgai. Datorren otsailaren 19an, parte hartzeko ekintza bat egingo du in situ, Joseba Edesarekin batera, *Lurra iruten* izenburupean.

• Laurita Silesek Arte Ederak ikasi ditu Valentziako Unibertsitate Politeknikoan, eta ekoizen plastiko nora gabea landu du, diziplinarik gabekoa. Arreta berezia jarri dio herri-folkloreko hizkuntzari, eta honelaxe definitzen du bere obra: bi hitzen artean –folklore eta nomada hitzen artean– iruten diren lanen, bizipenen eta esperientzien bilduma.

ERAKUSKETA

Erakusketan aurkezten diren lanak hiru toki desberdinetan kokatutako ikus-entzunezko proiektu batean daude sartuta: Bizkaian, bertan bizi bainaiz; Marbellan, nire sorterria delako, eta, azkenik, Islandian, egoitza artistikoa Gullkistan-en izan bainuen, Laugarvatn izeneko herri txikian dagoen sorkuntzako etxaldean. Helburu bera izan nuen hiru tokietan: bideo dokumental batzuk egitea, 19 pertsonari –artista, komisario eta kultura-arloko kudeatzaileei– egindako elkarrizketak oinarritzat hartuta. Dokumentu horietako bakoitzean, "helARTE es morirse de frio" esaerari buruzko ikerketak agertzen dira, leku bakoitzeko baliabide kulturalak, sozialak, klimatologikoak, fisikoak eta bestelakoak erabilita. Amaierako lanak 9 kapitulu ditu guztira, eta hilero eman da argitara Interneten, 2013ko urria eta 2014ko ekaina bitartean (www.helarteesmorirsedefrio.blogspot.com).

Elkarrizketa horiek eginez, gozamen handia izan dut, eta asko aberastu naiz, ezagutza, zirkulu eta kontaktu berriekin. Gainera, atsegin handia izan da Inés Bermejo, Fredi Paia, Ainhoa Ortells, Mikeldi Pérez Urquijo eta Izaro González Ieregiri elkarrizketak egin ahal izatea, Getxon (Bizkaia) artisten harrobi bat sortzeko dagoen beharraz. Elkarrizketak izan eta handik gutxira, Garrobi sortu da ondorioz (www.garrobi.com).

Erakusketa hau egiteko gonbidapena jaso ondoren, beste bideo bat filmatzea erabaki nuen, berariaz asmatutako eta kapitulu horietako guztietako harraldiak aukeratuz osatutako bideo bat. Ikerketa-lana umorez eta ironiaz beterik egon da, ez du inolako ondoriorik atera nahi, eta ate berriak uzten ditu zabalik, sorkuntzako barne azterketa, ikerketa eta bidaia egiteko. Filmaren amaierak argi frogatzen du hori, *Mutur Beltz* izeneko proiektu berriaren hasiera iragartzen baitu. Mutur beltzeko Karrantzako ardiak dira proiektu berri horren protagonistak, eta 2015eko uztailetik aurrera garatuko dut, Bilbaoarte Fundazioak emandako bekari esker.

Islandiako “Neyðin kennir naktri konu að spinna” esaera aurkitu nuen, euskaraz zera esan nahi duena: “Beharrak erakusten dio emakume biluziari iruten”. Orduan, hotza eta artilea irutea lotu ziren, hilabete batzuez buruan bueltaka nerabilen ideia. Islandiara iritsi nintzenean, zentzu betea hartu zuen denak. Ustekabe ederra hartu nuen, estudioan goru bat eta aldameneko landetxean artalde bat zain nituela ikustean.

Horiek horrela, egokia iruditu zait erakusketa honetan marrazki, zirriborro eta artilezko piezen aukeraketa bat ikusgai jartzea. Otsailaren 19an, 18:00etatik aurrera, parte hartzeko ekintza bat egingo dut haiekin in situ, Joseba Edesarekin batera (bizikide, hezitzaile eta ekintzailearekin), *Lurra iruten* izenburupean. Orain arte izan dudan ibilbide artistikoa indartu, eta lan eta bizipen horiek guztiak irungo ditut bi hitz hauen artean: FOLKLORE NOMADA.

Laurita Siles

ARTISTA www.folklorenomada.com

Laurita Siles (Málaga 1981) ekoizpen plastiko nora gabea landu du, diziplinarik gabekoa, arreta berezia jarri dio beti herri-folkloreko hizkuntzari. Beharbada, prestakuntza nomada izan zuelako Arte Ederretan, Valentzia, Islandia, Vancouver, Kanada eta Euskal Herriko arte-eskolen eta fakultateen artean. Gero, hainbat beka eta egoitza artistiko eskuratu ditu: Arteleku, Donostia/San Sebastián; Leonardo Da Vinci Beka, Bordeleko animazio tradizionaleko Marlouflims ekoiztetxean egina, Frantzia; MA Studio, Beijing, Txina; The Banff Centre, Banff, Kanada; Gullkistan, residency for creative people, Laugarvatn, Islandia.

24 aldiz etxez aldatu ondoren, gaur egun Enkarterri eta Uribe Kosta artean bizi da eta lan egiten du (Bizkaia), eta doktoregoko ikerlana amaitzen ari da UPV/EHUko Arte Ederren Fakultatean, Eusko Jaurlaritzak ikertzaileak prestatzeko emandako laguntza bati esker. *La utilización del Folklore como búsqueda de identidad en la creación artística de la era global. Desde una perspectiva diferencial entre los casos vasco y andaluz en obra de carácter sonoro* da izenburua, eta Josu Rekalde eta Iñaki Martínez de Albeniz doktoreak ari dira zuzentzen.

Era guztietako jarduerak egin ditu, banaka zein taldeka –Komando Triniko kide gisa–, betiere, praktika eta ikerketa artistikoa abiaburutzat hartuta, hala estatuan nola atzerrian: erakusketak, ekintzak, proiekzio bisualak, hitzaldiak eta abar.